



Gaualdiek maximo berri bat ezarri dute ekainean

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, **Euskadiko hotel establezimenduetako gaualdiak %8,7 igo ziren ekainean, aurreko urteko aldi beraren aldean**. Aurrerapen horrekin, turismo sektoreak dinamismo handia erakutsi du berriro, eta 729.000 os-tatu gau baino gehiago igaro ditu, ekainean inoiz izan den kopururik handiena.

Barne I+Gko gastua %5 hazi zen 2024an

Euskadiko barne I+G gastua
Milioika euro.



Iturria: Eustat


Eustaten behin-behineko datuen arabera, **barneko Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretako gastua %5,0 igo zen 2024an, eta horrek 2.000 milioi eurotik gorako gastua sendotu zuen**. Gainera, I+Gn diharduten langileak, lanaldi osoko baliokidetzan neurtuta, %4,6 gehitu ziren 2023aren aldean.



IPRIa %0,3 hazi zen ekainean urte arteko tasan

Industria prezioen indizea (IPRI)

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Ekainean, Euskadiko industriako prezioak aurreko urteko hil berean baino %0,3 altuagoak izan ziren. Sektore handien arabera, kontsumo ondasunak izan ziren nagusi hazkundean, %5,2ko igoerarekin. Ekipo ondasunak (%1,8) eta bitarteko ondasunak (%1,2) ere gehitu ziren. Aldiz, energiaren sektoreak urte arteko %7,4ko jaitsiera nabarmena izan zuen.

Eraikuntzaren kostuak berriz hazi ziren ekainean

Eraikuntzaren kostuen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Ekainean, Euskadiko eraikuntzaren kostuak %2,5 igo ziren urte arteko tasetan. Datu horrek adierazten du zertxobait apaldu dela maiztzean izandako gorakada handiaren aldean, baina urtearen hasierako mailen gaintetik dago oraindik. Igoera horrek osagai guztiei eragin zien: eraikuntzak %3,2 egin zuen gora, obra zibilak %3,3 eta eskulanaren kostuak %0,4 hazi ziren.